



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Dictamen de Comisión Informativa

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Informazio Batzordearen Irizpena

AYT/CIP/13/2024

ORG1810F2

Código de validación/Balidazio kodea
56014W6X535F50290AYV



Gai Orokorren eta Udalbatzarrak aztertu beharreko gaien Informazio-batzordeak 2024ko maiatzaren 21ean hartutako erabakiz Udalbatzarraren iritzipean jarriko da Gointondo-Ermua tartean Mallabia eta Ermuko (Bizkaia) saneamendu proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendaren eta aurkeztutako alegazioei emandako erantzunen behin betiko onespen partzialari buruzko ondorengo ebazpen proposamena, organo horrek, hurrengo bilkurara bertaratzen diren udal-korporazioko kideen aho batez, gaiari buruz erabaki dezan:

AURREKARIAK

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2023ko ekainaren 12ko Ebazpenaren bidez, behin betiko onartu zen "Mallabia eta Ermua udalerrietako (Bizkaia) saneamendurako eraikuntza-proiektua, Gointondo-Ermua tartea ". Bideinek Uraren Euskal Agentziarentzat idatzitako proiektua da, eta bertan zehazten dira proiektua gauzatzeko egin behar diren obrak. Horrekin batera, proiektua onura publikokoa dela deklaritzen da, bai eta proiektuaren eraginpeko lurra okupatu behar direla ere.

2023ko abenduaren 15ean lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten Uraren Euskal Agentziak, Gipuzkoako Ur Kontsultorioak, Mallabiko Udalak eta Ermuko Udalak, eta, horren bidez, erakunde guztiek aipatutako proiektuan zehazten diren jarduerak gauzatzen laguntzeko konpromisoa hartu zuten.

Por la Comisión Informativa de Asuntos Generales y de Pleno celebrada el día 21 de mayo de 2024, se eleva al Pleno de la Corporación para que adopte acuerdo al respecto, en la primera sesión que celebre, por unanimidad de los/as miembros de la Corporación presentes en la sesión de aquella, sobre Propuesta de resolución sobre la aprobación parcial definitiva de la relación de bienes y derechos afectados por el proyecto de "Saneamiento de los municipios de Mallabia y Ermua tramo Gointondo-Ermua" y contestación a las alegaciones presentadas.

ANTECEDENTES

Por resolución de 12 de junio de 2023, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, se aprueba definitivamente el "Proyecto constructivo de saneamiento de los municipio de Mallabia y Ermua (Bizkaia), tramo Gointondo-Ermua", proyecto redactado por Bidein para la Agencia Vasca del Agua, en el que se definen las obras necesarias para su ejecución y que lleva aparejada la declaración de utilidad pública y la necesidad de ocupación de los terrenos afectados por el mismo.

Con fecha 15 de diciembre de 2023 se firma un convenio de colaboración entre la Agencia Vasca del Agua, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, Ayuntamiento de Mallabia y el Ayuntamiento de Ermua, por el cual todos los organismos se comprometen a colaborar en la ejecución de las actuaciones que se definen en el proyecto referido.

Seigarren klausulan, "Ermuko Udalaren betebeharrak" izenekoan, Ermuko Udalak Uraren Euskal Agentziaren esku jarri behar ditu obrak burutzeko behar diren lurrak, aldi baterako eta behin betiko, obrak burutzeko, karga eta zamarik gabe, Udalbatzako idazkariak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez.

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 27an egindako ohiko bileran, korporazio-kideen legezko kopuruaren aho batez, besteak beste, jarraian idatzitako erabakia hartu zuela:

LEHENENGO. "Mallabia eta Ermua udalerrietako saneamendurako eraikuntzaproiektua, Goitondo-Ermua tarte (Bizkaia)" izeneko proiektua burutzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak eskuratzeko nahitaezko desjabetzearen espedientea hastea.

BIGARREN: Proiektuan sartutako partzela-zerrendatik atera den Ermuko udal-mugarterako ondasun eta eskubideen zerrenda hasierako izaeraz onestea.

HIRUGARREN: Erabaki hau argitaratzea eta eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda 15 egunez jendaurrean jartzea, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta probintziako egunkari batean argitaratuz, interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten.

La cláusula sexta "Obligaciones del Ayuntamiento de Ermua", define la obligación del Ayuntamiento de Ermua a poner a disposición de la Agencia Vasca del Agua, ejercitando los procedimientos expropiatorios correspondientes, los terrenos precisos, de modo temporal y definitivo, para la ejecución de las obras, con el fin de acometer la ejecución de las obras de conformidad con el programa de ejecución de las mismas, libres de cargas y gravámenes mediante certificación al efecto expedida por el Secretario de la Corporación local.

El Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria de fecha 27 de febrero de 2024, por unanimidad del número legal de miembros de la corporación, adoptó el acuerdo que a continuación se transcribe:

PRIMERO: Iniciar el expediente de expropiación forzosa para la adquisición de bienes y derechos afectados en el término municipal de Ermua, por el mencionado "Proyecto constructivo de saneamiento de los municipios de Mallabia y Ermua(Bizkaia), tramo Goitondo-Ermua".

SEGUNDO: Aprobar inicialmente la siguiente relación de bienes y derechos afectados del término municipal de Ermua, extractada del parcelario incluido en el proyecto.

TERCERO: Publicar el presente acuerdo y someter la relación de bienes y derechos afectados a información pública por plazo mínimo de 15 días mediante la publicación del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia y en un periódico de la provincia, para que los interesados puedan presentar las alegaciones que consideren oportunas.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Dictamen de Comisión Informativa

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Informazio Batzordearen Irizpena

AYT/CIP/13/2024

ORG1810F2

Código de validación/Balidazio kodea
56014W6X535F50290AYV



LAUGARREN: *Eraginpeko jabeei pertsonalki eta banan-banan erabaki honen berri ematea, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera hamabost eguneko epean, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten."*

2024ko martxoaren 22an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (59 zk.) argitaratuta, jendaurrean jarri zen hartutako erabakia, eta 15 eguneko epea eman zitzaion egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Banan-banan jakinarazten zaie eraginpeko pertsonari.

Gai Orokorren eta Udalbatzarrak aztertu beharreko gaien Informazio-batzordeak 2024ko maiatzaren 14an hartutako erabakiz Udalbatzarraren iritzipean jarriko da Goitondo-Ermua tartean Mallabia eta Ermuko (Bizkaia) saneamendua eraikitzeko proiektuan jasotzen diren desjabetzeek ukitutako ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu beharrekoak direla deklaratzeko, Eusko Jaurlaritzari egingo zaion eskaerari buruzko ebazpen-proposamena, organo horrek, hurrengo bilkurara bertaratzen diren udal-korporazioko kideen aho batez, gaiari buruz erabaki dezan:

2024ko maiatzaren 6an, Luis Mari Alberdik, Banco Sabadellen izenean, 3.859 zenbakiko sarrera-erregistroaren bidez, alegazio-idazkia aurkeztu zuen.

Udal zerbitzu teknikoek orain arte aurkeztutako alegazioei erantzuteko egindako txostena ikusita, honako hau erabaki da:

CUARTO: Notificar personal e individualmente este acuerdo a los/as propietarios/as afectados, para que durante el plazo de quince días a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación, puedan formular cuantas alegaciones estimen oportunas.

Con fecha 22 de marzo de 2024 mediante su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia (núm.59) se expone al público el acuerdo adoptado concediéndose un plazo de 15 días para interponer las alegaciones que se estimasen oportunas.

Se notifica individualmente a las personas afectadas.

Por la Comisión Informativa de Asuntos Generales y de Pleno celebrada el día 14 de mayo de 2024, se eleva al Pleno de la Corporación para que adopte acuerdo al respecto, en la primera sesión que celebre, por unanimidad de los/as miembros de la Corporación presentes en la sesión de aquella, sobre Propuesta de resolución sobre la solicitud a Gobierno Vasco de declaración de urgente ocupación de los bienes y derechos afectados por las expropiaciones incluidas en el "Proyecto constructivo del saneamiento de los municipios de Mallabia y Ermua (Bizkaia) tramo Goitondo Ermua".

Con fecha 6 de mayo de 2024, Luis Mari Alberdi, en representación del Banco Sabadell, presenta mediante registro de entrada nº 3.859 escrito de alegaciones.

Visto el informe emitido por los servicios técnicos municipales en respuesta a las alegaciones presentadas hasta la fecha, se acuerda lo siguiente:

LEHENENGO: Banco Sabadellek aurkeztutako alegazioak partzialki onestea.

BIGARREN: "Mallabia eta Ermuko udalerrien saneamendua Goitondo-Ermua tartean" proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onartzea, aurkeztu daitezkeen alegazioak aurkeztearen baldintzapean.

HIRUGARREN: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARREN: Eraginpeko jabeei pertsonalki eta banan-banan erabaki honen berri ematea.

PRIMERO: Estimar parcialmente las alegaciones presentadas por el Banco Sabadell.

SEGUNDO: Aprobar definitivamente la relación de bienes y derechos afectados por el proyecto de "Saneamiento de los municipios de Mallabia y Ermua tramo Goitondo-Ermua", condicionada a la presentación de las alegaciones que puedan presentarse.

TERCERO: Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

CUARTO: Notificar personal e individualizadamente el acuerdo a los propietarios de bienes y derechos afectados.

BOZKETAREN EMAITZA

PSE-EE/PSOE: Aldekoak 6

EH Bildu: Aldekoak 1

Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2

EAJ/PNV: Aldekoak 3

RESULTADO DE LA VOTACIÓN

PSE-EE/PSOE: A favor 6

EH Bildu: A favor 1

Elkarrekin Ermua: A favor 2

EAJ/PNV: A favor 3